



## ALDIZKARI OFIZIALA

### BOLETIN OFICIAL

VI MANDATO

VI. AGINTALDIA

Serie **B** INFORMACION, CONTROL Y DIRECCION POLITICA

**BARRI-EMOTEA, KONTROLA ETA POLITIKA-JOKERA** **B** Saila

**X** COMPARENCIAS

**BATZORDERATZEAK** **X**

Número 409 (a)

Bilbo, 2002.eko urriak 3  
Bilbao, 3 de octubre de 2002

409. (a) Alea

Relativa a la situación legal de una vivienda situada en el Barrio de Kanala (Gautegiz Arteaga) propiedad del exlehendakari José Antonio Ardanza, cuya reforma y ampliación no cumple la normativa vigente según el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai

#### PRESIDENCIA DE LAS JUNTAS GENERALES

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 2 de octubre del año en curso, ha acordado admitir a trámite la solicitud de COMPARENCIA, formulada por el Grupo Popular Vizcaíno, a la Sra. Diputada Foral de Medio Ambiente y Acción Territorial, relativa a la situación legal de una vivienda situada en el Barrio de Kanala (Gautegiz Arteaga) propiedad del exlehendakari José Antonio Ardanza, cuya reforma y ampliación no cumple la normativa vigente según el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, debiendo tramitarse por el procedimiento ordinario ante la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente, y ordenándose su remisión a la citada Comisión.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 86 del vigente Reglamento, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 3 de octubre de 2002.- El Presidente de las Juntas Generales, **Aitor Esteban Bravo**.

#### A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

D. Arturo Ignacio ALDECOA RUIZ, Apoderado del Grupo Popular Vizcaíno, al amparo del vigente Reglamento tiene el honor de solicitar la comparecencia en Comisión de la Ilma. Sra. Diputada Foral de Medio Ambiente y Acción Territorial, Dña. M<sup>a</sup> Esther SOLABARRIETA AZNAR, a fin de explicar la situación legal de una vivienda situada en el Barrio de Kanala (Gautegiz Arteaga) propiedad del exlehendakari José Antonio Ardanza, cuya reforma y ampliación no cumple la normativa vigente según el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

#### JUSTIFICACION

El órgano gestor de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, dependiente del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, acaba de anunciar que la casa torre que ha levantado en el Barrio de Kanala el exlehendakari y presidente de Euskaltel José Antonio Ardanza mediante reforma y ampliación del edificio preexistente no se adapta, a su juicio, a las determinaciones establecidas por el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

José Antonio Ardanza Lehendakari ohiak Urdaibain daukan etxe baten —Gautegiz-Arteagako Kanala auzoan dago eta, Urdaibaiko Patronatoaren arabera, horren barriztatze eta handitzeko lanek ez dabe beteten indarrean dagoan araudia— lege-egoereari buruzkoa

#### BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARITZA

José Antonio Ardanza Lehendakari ohiak Urdaibain daukan etxe baten —Gautegiz-Arteagako Kanala auzoan dago eta, Urdaibaiko Patronatoaren arabera, horren barriztatze eta handitzeko lanek ez dabe beteten indarrean dagoan araudia— lege-egoereari buruz Bizkaiko Talde Popularrak eskatutako Ingurugiro eta Lurralde-Ekintzapiderako Foru Aldun andrearen BATZORDERATZEAK Nekazaritza eta Ingurugiroko Batzordean agizko bideraketa izan dagiala onartzea erabagi dau Batzar Nagusietako Mahaiak aurtongo urriaren 2an izandako bileran. Era berean, aitatutako Batzordera bialtzea be agindu dau Mahaiak.

Guztiak horren jakitun egon daitezcan argitaratzea be agindu dau, Araudiaren 86. atalean zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2002.eko urriaren 3an.- Batzar Nagusietako Lehendakariak, **Aitor Esteban Bravo**.

#### BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Arturo Ignacio ALDECOA RUIZ jaunak, Bizkaiko Talde Popularrako Batzarkideak, indarrean dagoan Araudiaren arabera, batzorderatze eskea egiten deutso María Esther SOLABARRIETA AZNAR Ingurugiro eta Lurralde-Ekintzapiderako Foru Aldun andreari, José Antonio Ardanza Lehendakari ohiak Urdaibain daukan etxe baten —Gautegiz-Arteagako Kanala auzoan dago eta, Urdaibaiko Patronatoaren arabera, horren barriztatze eta handitzeko lanek ez dabe beteten indarrean dagoan araudia— lege-egoereari buruzko argipideak emon dagizan.

#### ARRAZOIKETA

Urdaibaiko Biosferaren Erretserbako organo kudeatzaileak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurugiroko Sailaren menpekota danak, iragarri barri dau Kanala auzoan José Antonio Ardanza jaunak, Lehendakari ohi eta gaurregun Euskaltel enpresako Lehendakari danak, eregi dauan torretxea, lehenagotik egoan etxe bat erabarritu eta handituta, ez datorrela bat, organo horren eritxiz, Urdaibaiko Biosferaren Erretserbako Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzaileak ezarritakoakaz.

Entre las presuntas irregularidades observadas, el Patronato señala la ampliación de la superficie construida en 245 m<sup>2</sup> por encima de lo estipulado, la elevación de la altura de la edificación en 1,20 m (pese a no estar permitido tal crecimiento) y la separación mínima a los linderos de 1 m frente a los 10 que son obligados.

Además, se ha construido una piscina prohibida y se ha modificado el proyecto que inicialmente era una casa bifamiliar, convirtiéndolo en tres viviendas.

Aunque estas presuntas irregularidades se denunciaron el pasado 10 de Mayo por diversos grupos, y han sido llevadas por el Partido Popular a la Comisión de Medio Ambiente de las Juntas Generales de Bizkaia y al Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco con diversas iniciativas, parece que el Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga, del PNV, no ha paralizado las obras como medida cautelar y éstas están finalizadas en la práctica.

Aunque la administración puede paralizar las obras, imponer sanciones o incluso ordenar la demolición (de lo que hay precedentes precisamente en esa zona), alguien parece que pretende que los hechos consumados lleven a legalizar de facto ya dejar como está la obra, aunque se exijan retoques cosméticos. De resultar así, se produciría un incumplimiento legal, una tomadura de pelo para el resto de los ciudadanos y un trato de favor a una persona. Las leyes están hechas para que las cumplan todos, no sólo los ciudadanos de a pie.

Si la Diputada de Medio Ambiente, vocal miembro del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, tiene algo que hacer en este caso, a demás de transmitir a las Juntas la información de que disponga, es exigir al Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga que restablezca la legalidad pese a quien pese, y pedir al Gobierno Vasco y al Patronato que velen con mayor diligencia para evitar que algunos conviertan Urdaibai en su Urbanización particular llena de chalecitos fuera de ordenación.

Por todo lo anterior, se solicita la comparecencia en Comisión de la Diputada Foral de Medio Ambiente y Acción Territorial, M<sup>a</sup> Esther Solabarrieta, para informar de todos los datos de que disponga a través del Patronato de Urdaibai, del Gobierno Vasco y del Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga sobre el chalet que ha construido el exlehendakari Ardanza en Kanala, sobre sus incumplimientos de la normativa vigente y sobre las medidas que se van a adoptar para restablecer el cumplimiento de la legislación y, en su caso, multar a sus infractores o modificar o derribar la construcción ilegal en su totalidad o en parte.

En Bilbao, a 26 de septiembre de 2002

**Arturo Ignacio Aldecoa Ruiz,**  
Apoderado del Grupo Popular Vizcaíno

**VºBº Portavoz Suplente Grupo Popular Vizcaíno**

Ikusitako irregulartasunen artean Patronatoak dino eregitakoaren azalera onartutakoa baino 245 m<sup>2</sup> handiagoa dala, eraikinaren garaiera 1,20 m jaso dala (jasotze hori onartu barik egon arren) eta hegal eta mugen arteko tartea metro batekoa dala eta ez derrigorrezko 10 metrokoa.

Horrezaz gain, galazota egon arren, ugerlekua egin da eta jatorriz etxebizitza birako zan proiektua aldatu egin da eta hiru etxebizitarako bihurtu.

Balitzko irregulartasunok zenbait taldek joandako maiatzaren 10ean salatu arren eta Bizkaiko Talde Popularrak zenbait ekimenen bitartez Bizkaiko Batzar Nagusietako Ingurugiroko Batzordera eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurugiroko Sailera eroan, antza danez, Gautegiz-Arteagako Udalak (EAJrena) ez ditu lanak badaezpadan geldierazo eta egotez lanok amaituta be badagoz.

Administrazioak lanak geldierazo, isunak jarri edo eregitakoa erastea be agindu leiken arren (inguru horretan hain zuzen holakoak gertatu dira-ta), badirudi baten batek gura dauala gauzatutakoa berez eta beste barik legeztatzea lortzea, itxurazko aldatetxoak eskatzea gora-behera. Hori holan jazo ezker, legea ez betetea legoke, enparaduko herritarrei adarra jotea eta inorenganako mesedekeria. Legeak herritar guztiek bete dagiezan dira, ez herritar xumeentzako bakarrik.

Ingurugiroko Foru Aldunak, Urdaibaiko Biosferaren Erretserbako Patronatukide izanik, berak daukan informazio guztia Batzar Nagusei emoteaz gain, exijitu egin behar deutso Gautegiz-Arteagako Udalariei legea gordeazoz dagiala, dana dalakoa kaltetu arren, eta eskatu egin behar deusie Eusko Jaurlaritzari eta Patronatoari estuago jokatu dagiela, Urdaibai inoren urbanizazio bihurtu ez dedin, antolamenduz kanpoko txaletxoak baterikoa.

Arestiko guztiagaitik, Ingurugiroko Batzordera etorri daitela eskatzen deusagu María Esther Solabarrieta Aznar Ingurugiro eta Lurralde-Ekintzapiderako Foru Aldun andreari. Urdaibaiko Patronatoaren, Eusko Jaurlaritzaren nahiz Gautegiz-Arteagako Udalaren bitartez gaiak daukazan argipide guztiak emon dagizan Ardantza lehendakari ohiak Kanalan egingako txaletari buruz; ea indarrean dagoan araudia beteten dauan, ea zer egingo dan legea bete dagian eta, halakorik behar balitz, legea hautsi dabenei isuna jarteko edo legez kanpo eregitakoa zati baten edo osorik aldatu edo botateko.

Bilbon, 2002.eko irailaren 26an

**Arturo Ignacio Aldecoa Ruiz,**  
Bizkaiko Talde Popularreko Batzarkidea

**O.E.: Bizkaiko Talde Popularreko Taldeburuordea**